

## BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEN KONTSULTAK ADMINISTRAZIO-GASTUAK

### **• % 0,55eko aplikazio gehigarria, hala badagokio, AKE edo IKIEetarako**

Egun on:

13/2024 Dekretuari buruz sortzen zaigun zalantza hau komentat nahi nuke, Bilbon egiten ari garen jardunaldian ebatzi ez duguna.

Kontsulta 16. artikuluan 1.2 paragrafoaren arabera administrazio-gastuak kalkulatzeari buruzkoa da: «BGAEak arrisku-kapitaleko erakundeetan edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeetan inbertitzen badu, BGAEen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan araututakoetan, aurreko lerrokada aplikatuko da baldin eta erakunde horiek erakunde kudeatzailearen edo bazkide sustatzailearen finantza-talde berekoak badira.

Finantza-talde berekoak ez badira, erakunde kudeatzaileek arrisku-kapitaleko erakundeetan edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeetan egindako inbertsioetatik eratorritako komisioak jasanarazi ahal izango dituzte, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan araututakoak, artikulua honen 1.1 idatz-zatian adierazitako komisioez gain, administrazio-gastuen konputuari aplikatu beharreko oinarri beraren gainean kalkulaturako % 0,55eko gehieneko muga gehigarria arte ...».

13/2024 Dekretuaren 1.1 ataleko administrazio-gastuaren gehieneko mugaren idazketa berriaren arabera (% 0,90, % 1,30 eta % 1,50), 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan definitutako arrisku-kapitaleko erakundeetan (AKE) edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeetan (IKIE) egindako inbertsioei dagokienez:

- AKE edo IKIE erakunde kudeatzailearen edo bazkide sustatzailearen finantza-taldekoa bada, BGAEak bere gain hartu beharko ditu inbertsio mota horretatik eratorritako gastuak, 1.1 ataleko gehieneko gastuaren barruan.

- AKEa edo IKIEa ez bada erakunde kudeatzailearen edo bazkide sustatzailearen taldekoa, berretsi zuekin % 0,55eko portzentaje gehigarria kalkulatzeko modua eta oinarria.

Horretarako, azalpen-dokumentu bat bidaltzen dizuet (horretarako egindako simulazioak), gure ulermenean oinarrituta, ahal den neurrian 13/2024 Dekretuak sartutako berritasunaren aplikazioa berresteko.

- 1. aukera: gastu gehigarria, 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan araututako AKE edo IKIEen merkatuko balioaren % 0,55, Kudeatzaileak kudeatu gabeak.

- 2. aukera: Administrazio Gastu Gehigarria, 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan araututako AKEetan edo IKIEetan inbertitzeagatik jasandako zeharkako komisioaren berdina, Kudeatzaileak kudeatu gabe, administrazio-gastua kalkulatzeko ondarearen % 0,55eko mugarekin.

Agur bero bat,

## **ERANTZUNA**

Otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuaren hirugarren paragrafoko hirugarren artikuluan ezarritakoari dagokionez, gehieneko muga gehigarria, % 0,55, plan batek jasandako zeharkako komisioak handitzeko aukera ematen duena, AKEetan eta IKIEetan egindako inbertsioen merkatu-balioaren gainean kalkulatu behar da. Inbertsio horiek maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. ter. k) eta 11.ter. m) artikuluetan daude araututa.